



espero datur  
EO-9

HEZKUNTZA  
PROGRAMA  
PROGRAMA DE  
MEDIACIÓN  
2018-2019

Contagiare  
procesi  
performee

ERUJA

Aroha

para afuera  
Kanpora





HEZKUNTZA  
PROGRAMA  
PROGRAMA DE  
MEDIACIÓN  
2018–2019

[REDACTED]

EO-05



*[Handwritten notes and signatures]*





Furniture  
Skinner

Furniture  
Skinner

Furniture

Furniture  
Skinner

Gure laugarren ikasturtera iritsi gara Tabakaleran, eta pozarren aurkezten dugu hezkuntza-programa berria. Gugan eta zuegan eraldaketa-prozesuak ahalbidetzen dituzten eta bizi garen munduarekiko begirada kritikoak aktibatzen dituzten topaketak eragiteko nahia izaten jarraitzen dugu, topaketa horiek kultur zentroaren barnean nahiz kanpoan egiteko. Arte garaikidean hezkuntza lantzeko oinarri gisa pedagogia kritikoak, pedagogia feministak edo herri-hezkuntza jartzen ditugu, eta esparru horretatik ekiten dugu, hurbilen duen errealitateaz blaitzen den erakunde-lanean.

Gure energia arte garaikidea eta komunitate oso anitzak lotzen dituzten proiektuetara bideratzen dugu; publiko horiek ez dira, agian, hain ohikoak kultur erakunde batean, baina programazioan parte hartzen dute hainbat formaturen bitartez: asteroko lantegiak eraikinean egoten diren gazteekin (*Harrotu ileak*), hileroko bilerak tabako-fabrikako langile ohiekin eraikinaren memoriak lehengoratzin jarraitzeko (*Kearen artxibogileak*), 0-6 urte arteko haurrak dituzten familietarako topaketa-espazio erregularrak (*Situ-akzioak*, *0-6 Bizi!* ekimenetik ateratako esperientzia) edo praktika artistikoez gozatzeko belaualdi-arteko truke-uneak (*Kamaleoiak gara!*).

2018/19 ikasturterako hezkuntza eta elkarte-komunitateei begira egindako lan-proposamenari dagokionez —argitalpen honetan bildu duguna—, ohi bezala, eskola-talde, elkarte, irakasle edo hezkuntza artistikoko ikertu nahi dutenentzako jarduera ugari aurkezten ditugu. Batetik, erakusketan sakonduko dugu askotariko iraupena duten lantegien bitartez; horiei esker, edukietarako sarbide-maila desberdinak egin ahal izango ditugu. Bestetik, ikasturtean zehar unibertsitatearen, ikastetxe batzuen eta kultur erakundeen artean zubiak erakitzen jarraituko dugu *Eskola aldiriak* ekimenean aukeratutako proiektuetako baten bitartez,

hezkuntza-komunitatearen barruko ehuna indartzeko asmoz. Irakasleekin eginiko programak, bestalde, gogoeta kolektiboko espazio bat eraikitzea proposatzen du elkarrireragiteko eta, hartara, gure jarduna aberasteko.

Erlazio iraunkorrak eta jasangarriak garatzen jarraitzeko asmoz datorren ikasturte berria da honako hau. Erakunde komunitatei irekitzeko, espazio porotsuak sortzeko, erakundeak bere mugak gainditzeko.


Llegamos a nuestro cuarto curso escolar en Tabakalera, felices de presentar de nuevo el programa de mediación. Seguimos interesadas en provocar encuentros dentro y fuera del centro cultural que posibiliten procesos de transformación (en nosotras, en vosotras) y activen miradas críticas al mundo en el que vivimos. El planteamiento que hacemos de la educación en el arte contemporáneo se inspira en las pedagogías críticas, las pedagogías feministas o la educación popular, y respondemos desde ese marco con un trabajo institucional permeable a su realidad más cercana.

Canalizamos nuestra energía hacia proyectos que vinculan el arte contemporáneo con comunidades bien diversas, públicos quizá menos habituales en una institución cultural pero que se implican en la programación a través de distintos formatos: talleres semanales con las y los jóvenes que habitan el edificio (*Harrotu ileak*), reuniones mensuales con las antiguas trabajadoras de la fábrica de tabacos para seguir restituyendo las memorias del edificio (*Archiveras del humo*), espacios de encuentro regulares para familias con niñas y niños de 0 a 6 años (*Situ-akzioak*, la experiencia que proviene de *0-6 Bizi!*), o momentos de intercambio para disfrutar de las prácticas artísticas entre diferentes generaciones (*Kamaleoiak gara!*).

En cuanto a la propuesta de trabajo para la comunidad educativa y asociativa durante el curso 2018/19, que agrupamos en esta publicación, presenta como de costumbre una serie de actividades dirigidas a grupos escolares, asociaciones, profesorado o a personas interesadas en la investigación en educación artística. Por un lado, profundizaremos en las exposiciones a través de talleres con temporalidades variadas, que permiten distintos niveles de acceso a los contenidos. Trabajaremos, por otro lado, durante todo el curso creando puentes entre la universidad, algunos centros escolares y la institución cultural a través de uno de los proyectos seleccionados en *Eskola aldiriak*, con el objetivo de reforzar el tejido dentro de la comunidad educativa. El programa con el profesorado, por su parte, propone la construcción de un espacio de reflexión colectiva en el que afectarnos las unas a las otras y enriquecer así nuestra práctica.

Un nuevo curso que llega con el espíritu de seguir desarrollando relaciones duraderas y sostenibles. Para abrir la institución a las comunidades, para generar espacios porosos, para que la institución traspase sus propios límites.

*Nerea Hernández, Leire San Martín eta Artaziak (Andrea Arrizabalaga, Mertxe Petxarroman eta Ana Revuelta).*



Hand-drawn floor plan with green annotations.

#0

LAN-ILDOAK.

LÍNEAS DE

TRABAJO.



# ERAKUSKETEKIN SOLASEAN EN DIÁLOGO CON LAS EXPOSICIONES

Nola sortu solasa erakusketa-aretoetan? Nola uztartu jarduera artistikoaren alorreko bera-riazko jakintzak horrelakoak ez direnekin? Nola elkarlotu ikerketa-prozesu kolektiboak esparru horretan?

Erakusket *-ekin -etatik -etan* lan egiteko, kontuan hartu behar da jakintzak gurutzatzeko sistemak dinamikoak direla. Esparru ezberdinetatik sustatu eta irakur daitezkeen konstelazio gisa uler ditzakegu, eta haietan zentzu berriak sor daitezke.

¿Cómo generar diálogos en las salas de exposiciones?, ¿cómo cruzar saberes específicos del campo de la práctica artística con otros que no lo son?, ¿cómo articular procesos de investigación colectiva en este marco?

Trabajar *Con-Desde-En* las exposiciones supone entenderlas como sistemas dinámicos en los que provocar cruces de saberes, pensarlas como konstelaciones para activar y leer desde territorios diversos y generar en ellas nuevos sentidos.

# PEDAGOGIAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA PEDAGOGÍAS Y ESPA- CIO PÚBLICO

Zer nolako hezkuntza-ahalmena dute gune publikoek? Portaerak baldintzatu eta ekintzak mugatu ditzakete? Nola esku har dezakegu haietan kolektibitateak eraikitzeko?

Etengabeko ikasketa ematen den esparruak dira gune publikoak. Arkitekturako eta hirigintzako maniobrek ahalmena dute zenbait jarrera normalizatu eta hegemoniaren araberakoak ez direnak kanporatzeko. Gune publikoak elkarrekin bizi eta erabiliak izateko dira, eta hezkuntza gune ego-  
kia da horien erabilpena eta balizko eraldaketak hausnartzeko.

¿Qué potencial educativo existe en los espacios públicos?, ¿pueden condicionar comportamientos y limitar acciones?, ¿cómo podemos intervenir en ellos para construir colectividades?

Los espacios públicos son lugares en los que se produce aprendizaje constantemente. Las maniobras arquitectónicas y urbanísticas poseen la capacidad de normalizar determinadas actitudes y expulsar aquellas que no responden a la hegemonía. Los espacios públicos deben ser vividos y habitados en común, y la educación es un buen lugar desde el que pensar sobre sus usos y sus posibles transformaciones.

## HEZKUNTZA ETA IKUS-ENTZUNEZKO NARRATIBAK EDUCACIÓN Y NARRA- TIVAS AUDIOVISUALES

10 Nolakoa ahalmena du ikus-entzunezkoak ikas-  
keta-prozesuen aktibatzaile gisa? Ikusteko,  
entzuteko edo kontatzeko era nagusien alter-  
natibak sor daitezke? Sortzen eta zabaltzen di-  
tugun irudiei buruzko gogoeta kritikoa egin al  
daiteke?

Ikus-entzunezko jarduketek mundu berriak  
sortzea ahalbidetzen dute. Filma bat gai da  
subjektibazio-prozesuak eta, aldi berean, erre-  
presentazio kolektiboak sustatzeko. Kontatzea,  
ekitea, entzutea edo begiratzea jarrera politi-  
koa hartzeko ekintzatzat har litezke.

¿Qué poder tiene lo audiovisual como acti-  
vador de procesos de aprendizaje?, ¿pueden  
generarse alternativas a las formas dominan-  
tes de ver, escuchar o narrar?, ¿cabe pensar  
críticamente sobre las imágenes que produ-  
cimos y divulgamos?

Las prácticas audiovisuales posibilitan la  
creación de nuevos mundos. Una película es  
capaz de activar procesos de subjetivación y  
al mismo tiempo de representación colecti-  
va. Narrar, actuar, escuchar o mirar pueden  
ser entendidos como actos de posiciona-  
miento político.

## FEMINISMOAREN ETA GORPUTZAREN PEDAGOGIAK PEDAGOGÍAS FEMINIS- TAS Y CORPORALES

Jakintza guztiak maila berean kokatzen dira ala  
batzuk ezkutatu egiten dira? Nola aktiba deza-  
kegu gorputzaren entzuketara eta nola ikas deza-  
kegu bertatik? Bizitzak eta zaintzak ardatz izan  
behar dutela diogunean, zer esan nahi dugu?

Badira zilegitasuna onartzen ez zaien jakiteak  
eta ezagutzak, eta haietatik jardutea interesga-  
rria da kategoriak deseraikitzeke. Gaur egun  
lehentasunezkoa da zaintzaren bidezko ikaske-  
ta komuna aldarrikatzea, bizitza eta gorputza  
adimenaren parean ipiniz. Harremanak eduki-  
tzeko era berriak gorputzu behar dira, horrela  
hierarkia tradizionalak eraisteko.

¿Se sitúan todos los saberes al mismo nivel o  
se invisibilizan algunos? ¿cómo podemos ac-  
tivar la escucha del cuerpo y aprender desde  
ese lugar? Cuando se habla de la importancia  
de poner la vida y los cuidados en el centro,  
¿a qué nos referimos?

Existen saberes y conocimientos no legítima-  
dos desde los que es interesante enunciarse  
para deconstruir categorías. Reivindicar un  
aprendizaje común a través de los cuidados,  
poniendo la vida y el cuerpo al mismo nivel  
que el intelecto, es prioritario hoy en día.  
*In-corporizar* nuevos modos de relacionarnos  
para subvertir así las jerarquías tradicionales.

## *ESKOLA: HEZKUNTZA IKERKETA GISA*

### *ESKOLA: MEDIACIÓN COMO INVESTIGA- CIÓN*

Nolako ikerketa-jarduerak lantzen dira hezkuntzaren ezagupenetatik abiatuta? Nola egin dezakegu gogoeta geure jarduketez hezkuntzako lanaren bidez? Nolako ekintza eta ikerketa metodologiak interesatzen zaizkigu alor horretan?

Hezkuntzak etengabeko gogoeta- eta ebaluaketa-prozesua izan behar du. Horregatik, proposatzen dugu hari buruz hausnartzea ekoizpen kultural eta ikerketa kolektibo bezala, eta instituzionalitate era berrien esperimentazio-prozesuak burutzea. Hau da, erakundetik kanporako eta barnerako pedagogia egitea.

¿Qué prácticas de investigación se producen desde el conocimiento situado en la mediación?, ¿cómo poder reflexionar sobre nuestras prácticas a través del propio trabajo educativo?, ¿qué metodologías de acción e investigación nos interesan en este campo?

La educación debe ser un proceso de reflexión y de evaluación constante. En ese sentido, proponemos pensar sobre ella como producción cultural e investigación colectiva, así como proceso de experimentación de nuevas formas de institucionalidad. Hacer pedagogía hacia fuera y hacia dentro de la institución.

## Index

- TALDE LANTEGIAK ERAKUSKETETAN. / TALLERES PARA GRUPOS EN LAS EXPOSICIONES. P. 16 OR.  
ELKAR-EKIN. SEKUENTZIA PEDAGOGIKOAK ERAIKIZ. / ELKAR-EKIN. CONSTRUYENDO SECUENCIAS PEDAGÓGICAS. P. 22 OR.  
REC. ZINEMA ESPERIMENTAL LANTEGIA. / REC. TALLER DE CINE EXPERIMENTAL. P. 26 OR.  
ESKOLA ALDIRIAK. ESKOLA KOMUNITATEAREN TZAT DEIALDIA. / ESKOLA ALDIRIAK. CONVOCATORIA PARA LA COMUNIDAD EDUCATIVA. P. 30 OR.  
IRAKASLERIAREKIN PROGRAMA. / PROGRAMA CON EL PROFESORADO. P. 34 OR.

## 2018

IRAILA      URRIA      AZAROA      ABENDUA  
SEPTIEMBRE    OCTUBRE    NOVIEMBRE    DICIEMBRE

## 2019

URTARRILA    OTSAILA    MARTXOA    APIRILA    MAIATZA    EKAINA    UZTAILA    ABUZTUA  
ENERO        FEBRERO    MARZO      ABRIL      MAYO        JUNIO      JULIO        AGOSTO

---

P. 16 OR.

TALDE LANTEGIAK ERAKUSKETETAN.  
TALLERES PARA GRUPOS EN LAS EXPOSICIONES.

---

P. 19 OR.

Rosa Barba. *Drawn by the Pulse*  
*Denbora harrapatzea*. Kamerarik gabeko animazio-zinemako lantegia.  
*Atrapar el tiempo*. Taller de cine de animación sin cámara.

---

P. 19 OR.

Natasha Marie Llorens. *L'intrus*  
*Nor dabil hor?* Performance-lantegia.  
*¿Quién anda ahí?* Taller de performance.



P. 20 OR.

LANEAN, Darcy Lange & Tractora Koop. E.  
Lantokiak. Irudi-lantegia.  
*Lugares de trabajo. Taller de imagen.*

P. 22 OR.

ELKAR-EKIN. SEKUENTZIA PEDAGOGIKOAK ERAIKIZ.  
ELKAR-EKIN. CONSTRUYENDO SECUENCIAS PEDAGÓGICAS.

P. 26 OR.

REC. ZINEMA ESPERIMENTAL LANTEGIA.  
REC. TALLER DE CINE ESPERIMENTAL.

P. 30 OR.

ESKOLA ALDIRIAK. ESKOLA KOMUNITATEAREN TZAT DEIALDIA.  
ESKOLA ALDIRIAK. CONVOCATORIA PARA LA COMUNIDAD EDUCATIVA.

P. 36 OR.


IRAKASLERIAREKIN PROGRAMA.  
Lehenengo topaketa-gunea.  
PROGRAMA CON EL PROFESORADO.  
DO. Primer espacio de encuentro.


P. 36 OR.

IRAKASLERIAREKIN PROGRAMA.  
Bigarren topaketa-gunea.  
PROGRAMA CON EL PROFESORADO.  
Segundo espacio de encuentro.

P. 37 OR.

IRAKASLERIAREKIN PROGRAMA. Artea eta feminismoa hezkuntzan. Lantaldea.  
PROGRAMA CON EL PROFESORADO. Arte y feminismo en la educación. Grupo de trabajo.





*process:  
performance*

*contemporary*

#1

TALDE LANTEGIAK  
ERAKUSKETETAN.

TALLERES PARA  
GRUPOS EN LAS  
EXPOSICIONES.



*Ikasleak oso gustura egon dira, batzuek astindua jaso dute, bertan ikusitakoak eta egindakoak eragin die, “arrastoa utzi” esaten dena. Aurreko lanarekin loturak, zubiak, erresonantziak sortu ditu saioak, eta ikasketa prozesu batean izendatu ezin daitezkeen hainbat gauza agertu dira.*

—Ixiar Rozas. HUHEZIko arte-hezkuntzako irakaslea.

*Las/os estudiantes han estado a gusto, algunas/os han recibido una sacudida, les ha afectado lo visto y hecho en el lugar, les ha “dejado poso”, como se suele decir. El taller ha creado enlaces, puentes, resonancias con el trabajo realizado anteriormente, y han aparecido varios elementos que normalmente no se pueden nombrar en los procesos de aprendizaje.*

—Ixiar Rozas. Profesora de educación artística de HUHEZI.

Arte garaikidea funtsezko tresna bat da pentsamendu kritikoa ahalbidetzeko eta gure inguruko gai gakoei buruz gogoeta egiteko. Jarduera hauetan erakusketetara ikuspuntu eta ezagutza-arlo desberdinetatik hurbiltzen gara, hala nola zientzia, gorputza, ekonomia edo feminismoak, eta ikasgelako parametro tradizionaletatik irteten ahalegintzen diren ikaskuntza-espazioak sortzen ditugu. Topaketa mota horiek gure munduarekiko begiradak zabaltzeko bide ematen duten dirdirak eragin ditzakete.

El arte contemporáneo es una herramienta fundamental para posibilitar el pensamiento crítico y reflexionar sobre temas clave de nuestro alrededor. En estas actividades nos acercamos a las exposiciones desde diferentes perspectivas y ámbitos de conocimiento como la ciencia, el cuerpo, la economía o los feminismos, y generamos espacios de aprendizaje que intentan salir de los parámetros tradicionales del aula. Este tipo de encuentros pueden provocar destellos que permitan ampliar las miradas a nuestro mundo.

Ordu eta erdiko lantegiak dira, eta erakusketetara lehen hurbilketa bat egiteko aukera ematen dute. Saio dinamikoak dira, taldeen premia eta interesetara egokitzen gara, eta horietan aktiboki parte hartzea bilatzen dugu.

Ikasturtean zehar hainbat gai landuko ditugu (zinema, astronomia, identitatea edo lana) hainbat erakusketatatik abiatuta: Rosa Barbaren *Drawn by the Pulse*, Natasha Marie Llorens-ek komisariatutako *L'intrus* eta *Lanean*, Darcy Lange & Tractora Koop-en eskutik.

Talleres de una hora y media de duración que permiten un primer acercamiento a las exposiciones. Son sesiones dinámicas en las que nos adecuamos a las necesidades e intereses de los grupos y buscamos la participación activa de los mismos.

Durante este curso trabajaremos en torno a temas como el cine, la astrología, la identidad o el trabajo, a partir de las exposiciones *Drawn by the Pulse* de Rosa Barba, *L'intrus* de Natasha Marie Llorens y *Lanean*, de Darcy Lange & Tractora Koop.

DATAK: 2018KO IRAILA – 2019KO EKAINA, ERAKUSKETEN DATEKIN BAT ETORRITA. ORDUTEGIA: ASTEAZKENETIK OSTIRALERA, 10:00–14:00 ETA 16:00–18:00. LANTEGIREN IRAUPENA: 2 ORDU GEHIENEZ. PERTSONA KOPURUA: 25 PERTSONA TALDEKO (GEHIENEZ BI TALDE ALDI BEREAN).

FECHAS: SEPTIEMBRE 2018 – JUNIO 2019, COINCIDIENDO CON LAS FECHAS DE LAS EXPOSICIONES. HORARIO: DE MIÉRCOLES A VIERNES, DE 10:00 A 14:00 Y DE 16:00 A 18:00. DURACIÓN DE LOS TALLERES: 2 HORAS MÁXIMO. NÚMERO DE PERSONAS: 25 POR GRUPO (MÁXIMO DOS GRUPOS SIMULTÁNEOS).

IKASKETA ZENTROENTZAT ETA ELKARTEENTZAT. / DIRIGIDO A CENTROS ESCOLARES DE PRIMARIA, SECUNDARIA, BACHILLER Y ASOCIACIONES.

\* Aldez aurretik izena emanda /  
Previa inscripción:  
[hezkontza@tabakalera.eu](mailto:hezkontza@tabakalera.eu)

## Irailak 11 – urriak 11

## 11 septiembre – 11 octubre

### Rosa Barba. *Drawn by the Pulse*

Rosa Barbaren lanen abiapuntua ingurune naturala eta unibertsoa argitzen, ulertzen eta sakontzen duen begiratzeko modu bat da. Bere lan sortzailean zientzia-fikzioaren eta proiektu zientifikoaren narriaba-estrategiak uztartzen ditu, irudia eta soinua erreproduzitzeko gailuekin esperimentatzearen bitartez artikulazioak sortuz.

### *Denbora harrapatzea.*

KAMERARIK GABEKO ANIMAZIO-ZINEMAKO LANTEGIA

Lantegi hauetan gure ingurunea behatzeko moduak aktibatzea proposatzen dugu irudia, argia eta soinua erreproduzitzeko gailuekin esperimentatuz. Erakusketa-aretoetan murgilduko gara, artistaren zenbait proposamen behatu eta aztertuko ditugu, ondoren gure esperimentazio kolektiboak planteatzeko soinugailu analogiko edo irudiak erreproduzitzeko gailu zaharren bidez.

### Rosa Barba. *Drawn by the Pulse*

Las obras de Rosa Barba tienen como punto de partida una forma de mirar que desentraña, entiende y profundiza en el entorno natural y el universo. En su trabajo creativo, conjuga estrategias narrativas de la ciencia ficción y de proyectos científicos, creando articulaciones por medio de la experimentación con aparatos de reproducción de la imagen y el sonido.

### *Atrapar el tiempo.*

TALLER DE CINE DE ANIMACIÓN SIN CÁMARA

En estos talleres, proponemos activar formas de observación de nuestro entorno por medio de la experimentación con aparatos de reproducción de imagen, luz y sonido. Nos adentraremos en las salas expositivas observando y profundizando en varias propuestas de la artista para luego pasar a plantear nuestras experimentaciones colectivas a través de dispositivos sonoros analógicos o antiguos aparatos de reproducción de la imagen.

## Urriak 31 – otsailak 1

## 31 octubre – 1 febrero

### Natasha Marie Llorens. *L'intrus*

*L'intrus* erakusketak ezezagunaren irudikapen etiko eta konplexu bat egitea zein zaila den aztertzen du. Ezezaguna “komunitateak” argiki ikusterik ez duen norbait da. Arrotzaren argazki bat egitea arrotz gisa identifikatzea da. Errepresentazioek subjektuak hitz gako batera murrizteko efektua dute. “Guretzat” bestetasunaren ikur bihurtzen dira.

### *Nor dabil hor?*

PERFORMANCE-LANTEGIA

Identitatea zerbait biologikoa al da? Edo, aitzitik, kulturalki eraikitako zerbait al da? Nola irudikatzen eta zehazten da? Lantegi honetan, performance-estrategia desberdinak erabiliko ditugu banakoen eta kolektiboen nortasunaren ideia aldatzeko edo hari berriz esanahia emateko. Normaltasuna bezalako nozioak jarriko ditugu zalantzan, erakusketan presente dauden obretatik abiatuta. Jardueran zehar hainbat kontzeptu aterako dira: identitatea, arraza, desberdintasuna edo kultura.

### Natasha Marie Llorens. *L'intrus*

*L'intrus* es una exposición colectiva, comisariada por Natasha Marie Llorens, sobre lo difícil que es hacer una imagen ética y compleja del extraño, alguien a quien “la comunidad” no puede ver claramente. Hacer una foto del extraño es identificarlo como un extraño. Las representaciones tienen el efecto de reducir a los sujetos a una palabra clave. Se convierten en símbolos de su otredad para “nosotros”.

### *¿Quién anda ahí?*

TALLER DE PERFORMANCE

¿Es la identidad algo biológico?, ¿es, por el contrario, algo culturalmente construido?, ¿cómo se representa y define? En este taller emplearemos diferentes estrategias performativas para alterar o resignificar la idea de identidad individual y colectiva. Cuestionaremos nociones como la normalidad, trabajando a partir de diferentes obras presentes en la exposición. Conceptos como identidad, raza, diferencia o cultura surgirán en el transcurso de la actividad.

## Abenduak 5 – martxoak 9 5 diciembre – 9 marzo

### Lanean. Darcy Lange & Tractora Koop. E.

Langeren filmak Erresuma Batuan, Espainian eta Zeelanda Berrian lana klase-egituraren adierazpide gisa modu enpatiko eta konprometituan behatze-tik abiatzen dira. Hasi bideoa feedback- (itzulketa-) tresna gisa ulertzetik, edo Ingalaterrako hainbat eskolatan irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen analisi-tresna gisa erabiltzetik, eta bideoa eraldaketa sozialerako eta defentsan komunitate- eta ekintza-antolakuntzarako bitarteko moduan ulertzera arteko garapena erakusten dute.

### *Lantokiak.*

IRUDI-LANTEGIA

Lantegi honetan, ikus-entzunezkoek argazki eta bideoen bitartez fikziozko narrazioak eraikitzeke duten ahalmena sakon aztertuko dugu. Irudiak errealitatea sortzeko modu gisa ulertuta, errealitatea/fikzioa dikotomia landuko dugu. Horrez gain, irakaskuntza eta ikasketaren ideian sakonduko dugu, lan gisa pentsatzeko. Nola jokatzeko dugu eskolara joaten garenean?, zer keinu egiten ditugu?, zer jarrera hartzen ditugu?, zer pentsamendu ditugu?, zer erlazio dugu irakasleekin?

### Lanean. Darcy Lange & Tractora Koop. E.

Las películas de Lange evolucionan desde una observación empática y comprometida del trabajo como forma de expresión de la estructura de clases en el Reino Unido, España y Nueva Zelanda, pasando por una concepción del vídeo como herramienta de feedback (retorno) o análisis en el proceso de enseñanza y aprendizaje de distintas escuelas en Inglaterra, hasta una consideración del vídeo como medio para el cambio social y la organización comunitaria y activista en la defensa.

### *Lugares de trabajo.*

TALLER DE IMAGEN.

En este taller profundizaremos en el poder que tienen los audiovisuales para construir narraciones ficticias mediante fotografías y vídeos. Entendiendo las imágenes como formas de creación de realidad, trabajaremos sobre la dicotomía realidad/ficción. Además, profundizaremos en la idea de la docencia y el estudio, para pensarlas como trabajo. ¿Cómo nos comportamos cuando asistimos a clases?, ¿qué gestos hacemos?, ¿qué posiciones tomamos?, ¿qué pensamientos tenemos?, ¿qué relaciones entablamos con profesoras y profesores?



Handwritten text in blue ink, possibly a signature or name, written vertically across the page.

EO-9



#2

ELKAR-EKIN.  
SEKUENTZIA  
PEDAGOGIKOAK  
ERAIKIZ.

ELKAR-EKIN.  
CONSTRUYENDO  
SECUENCIAS  
PEDAGÓGICAS.

*Horrelako egoerek zure “konfort” zonaldeetik ateratzen zaituzte.*  
(Lehen hezkuntzako irakaslea)

*Gai artistiko eta sozialen arteko nahasketa oso komenigarria dela iruditzen zaigu haur eta gazteen-tzat; artea ezezagun handia da hezkuntzaren munduan eta bikain iruditzen zaigu zentro horietan arteari balioa ematea.*  
(Bigarren hezkuntzako irakaslea)

*Este tipo de experiencias te sacan de tu zona de “confort”*  
(Profesora de primaria)

*La mezcla entre temas artísticos y sociales nos parece muy recomendable para pequeños y jóvenes, el arte es un gran desconocido dentro del mundo de la educación y nos parece genial que se valore en estos centros.*  
(Profesora de secundaria)

Proiektu horiek engranaje gisa funtzionatzen dute itxuraz lotuta ez dauden errealitateak lotzeko, esaterako, ikasgelak ekoizpen artistikoko espazioekin, eta hezkuntza-prozesuak aberasten dituzten gurutzaketa eta ikaskuntza kolektiboko puntuak dira. Egiteko moduak elkarri kutsatzen zaizkie eta ikasgelaz eta erakunde artistikoaz harago doazen aukerak irekitzen dira. Denborak luzatu egiten dira eta erlazioa epe ertainekoa izatera igarotzen da, negoziatziorako eta proba eta akatserako denborarekin, edo etengabeko elkarrizketarekin.

Estos proyectos funcionan como engranajes para vincular realidades aparentemente des-conexas como, por ejemplo, las aulas con los espacios de producción artística, y son puntos de cruce y de co-aprendizaje colectivos que enriquecen los procesos educativos. Las formas de hacer se contagian mutuamente y se abren posibilidades que van más allá del aula y de la institución artística. Los tiempos se alargan y la relación pasa a ser de medio plazo, con tiempo para la negociación, la prueba y el error, o el diálogo constante.

*Elkar-ekin* programaren xedea da unitate didaktiko bat diseinatzea irakasle edo hezitzaileekin batera. Kontuan izango dira, batetik, eskola-curriculumarekin eta/edo taldearen interesekin koherentea izatea, eta, bestetik, Tabakalerako hezkuntza-arlotik proposatutako gaiak; hiru-bost saioko sekuentzia pedagogikoa pentsatuko da, talde bakoitzaren premiei erantzuteko eta konpetentziak garatzen laguntzeko.

**GAIK DEFINITZEKO HONAKO BLOKE HAUE-TAKO BAT IZANGO DA ABIAPUNTUA:**

**Praktika artistikoak:** Erakusketetatik (ikusi hurrengo erakusketei buruzko informazioa 19. eta 20. orrietan) eta ikus-entzunezko gramatik sortutako edukiak.

**Feminismoak eta performancea:** Praktika artistiko feministekin eta performancearen arloarekin lotutako edukiak, genero-eraikuntzekiko ikuspuntu kritikotik.

**Espazio publikoa:** Espazioak zenbait erabilera zehaztu eta beste batzuk baztertzen dituzten leku arautu gisa birpentsatzeko aukera ematen duten edukiak.

El programa *Elkar-ekin* consiste en diseñar una unidad didáctica junto con el profesorado o educadores y educadoras. Teniendo en cuenta, por un lado, la coherencia con el currículo escolar y/o los intereses del grupo y, por otro, las temáticas propuestas desde el área de mediación de Tabakalera, se pensará una secuencia pedagógica de unas tres a cinco sesiones que responda a las necesidades de cada grupo y que contribuya al desarrollo de las competencias.

**LOS TEMAS SE DEFINIRÁN TOMANDO COMO PUNTO DE PARTIDA UNO DE LOS SIGUIENTES BLOQUES:**

**Prácticas artísticas:** contenidos que surgen de las exposiciones (ver info sobre próximas exposiciones en pág. 19 y 20) y de su programa audiovisual.

**Feminismos y performance:** contenidos que tienen que ver con las prácticas artísticas feministas y la performatividad, desde una mirada crítica a las construcciones de género.

**Espacio público:** contenidos que permiten repensar los espacios como lugares normativizados que determinan ciertos usos excluyendo otros.

**DATAK:** 2018KO URRIA – 2019KO MARTXOA\*. SAIO KOPURUA: 2 BILERA (PRESTATZEKO ETA KO-EBALUAZIOKOA), ETA 3 SAIO TALDEEKIN. IRAUPENA: TABAKALERAN SAIOEK 2 ORDU IRAUNGO DUTE; SAIOEK INSTITUTUETAN IZANGO DUTEN IRAUPENA TALDE BAKOITZAREN ARDURADUNAREKIN ADOSTUKO DA.

**FECHAS:** OCTUBRE 2018 – MARZO 2019\*. NÚMERO DE SESIONES: 2 REUNIONES (PREPARATIVA Y DE CO-EVALUACIÓN), Y 3 SESIONES CON EL GRUPO. DURACIÓN: LAS SESIONES TENDRÁN UNA DURACIÓN DE 2 HORAS, LA DURACIÓN DE LAS MISMAS EN EL INSTITUTO SE ACORDARÁ CON LA PERSONA RESPONSABLE DEL GRUPO.

ESKOLA-TALDEENTZAT ETA ELKARTEENTZAT. / DIRIGIDO A CENTROS ESCOLARES Y ASOCIACIONES.

\* **Izen-ematea urriaren 1etik 10era zabalik. Gehienez 8 talde aukeratuko dira. Urriaren 15ean egingo da lehenengo bilera aukeratutako taldeen arduradunekin. / Plazo de inscripción abierto del 1 al 10 de octubre. Se seleccionarán un máximo de 8 grupos. El 15 de octubre se celebrará la primera reunión con las responsables de los grupos seleccionados.**

Para siswa  
Kampus





#3

*REC. ZINEMA*  
**ESPERIMENTAL**  
**LANTEGIA.**

*REC. TALLER*  
**DE CINE**  
**ESPERIMENTAL.**

(...) Eskolaren testuinguruan gazteek dituzten esperientzia eta erreferentzetatik abiatuz, ikus-entzunezko alternatibak ikusi, eztabaidatu eta eraikitzen ahalegintzen gara. Hurbilten dituzten galdera, gatazka nahiz egonezinei erantzunak bilatu baino, galdera gehiago sorrarazi eta, bere horretan, irudikeria garaikidea osatzen duten amalgama zabaltzen eta nasaitzen ahalegintzeko.

—Aitor Gametxo. Zinemagilea eta hezitzailea.

*Partiendo de referencias y experiencias de los jóvenes en el contexto escolar, intentamos ver, discutir y construir alternativas audiovisuales. En lugar de dar respuestas a las preguntas e inquietudes cercanas, tratamos de generar más preguntas, para desde ahí tratar de ampliar la amalgama que compone la imaginaria contemporánea.*

—Aitor Gametxo. Cineasta y educador.

Ikus-entzunezkoek mundu berriak ahalbidetzeko duten ahalmena azpimarratu nahi dugu. Film bat zentzuen unibertso txiki bat da bere horretan, katean egindako eraikuntza bat da, eta agian beste era batera sortuko ez liratekeen mugimendu mentalak aktibatzeke aukera ematen du. Ikus-entzunezkoak ikasteko funtsezko tresnak dira, baina ez hori bakarrik; izan ere, beste batzuekin film bat ikustea baliagarria da elkarbizitza aktibatzeke. Zinema esperimentalera hurbilduko gara nagusi diren narratibetatik urruntzeko eta estereotipoetatik kanpo dauden ideiak edo subjektuak ikusgarri egiteko beste modu batzuk ezagutarazteko. Arraza, generoa edo identitate sexuala konbentzionalak ez diren ikus-entzunezko formatuekin nahastea da xedea, aukera semantiko eta ideologikoak zabaltzeko.

Nos interesa enfatizar en el poder del audiovisual como posibilitador de nuevos mundos. Una película constituye en sí misma un pequeño universo de sentidos, de construcciones en cadena que permiten activar movimientos mentales que quizá de otro modo no sucederían. Entender lo audiovisual como herramienta fundamental para el aprendizaje, pero no solo, ya que la propia experiencia de ver una película con otras personas favorece la activación de la vida en común. Nos aproximamos al cine experimental para salir de las narrativas dominantes y dar cuenta de otras formas de hacer que visibilicen ideas o sujetos situados fuera de los estereotipos. Cruzar temáticas como la raza, el género o la identidad sexual con formatos audiovisuales no convencionales para posibilitar aperturas semánticas e ideológicas.

Programa honen hasierako helburua zen ikus-entzunezkoak lantzea nork bere burua irudikatzeko moduak eraikitze eta ikusgarri egiteko tresna gisa. Saioen abiapuntua zinema esperimental da, eta gazteek irudiari buruz dakitena eta irudiekin egunero egiten duten erabilera aintzat hartzen dute.

Ikasturte honetatik aurrera REC lantegiak sei saio izango ditu; saio horietan, filmak ikusiko ditugu, gailu mugikorrek edo kamerak erabiliz grabazioak egingo ditugu, eta sortutako material horiek editatuko ditugu. 2019ko urtarrila aldera, bilera bat egingo dugu parte hartuko duten ikastetxeetako arduradunekin. Bukatzean, azken saioa egingo dugu haiekin, prozesuak partekatzeko.

Este programa nace con el objetivo de trabajar el audiovisual como herramienta para construir y visibilizar modos de auto-representación. Las sesiones toman como punto de partida el cine experimental, reconociendo los saberes y usos que las y los jóvenes hacen de la imagen a diario.

REC contará a partir de este curso con un total de seis sesiones durante las que se trabajarán visionados, grabaciones con dispositivos móviles o cámaras y la posterior edición de los materiales generados. Hacia enero de 2019 realizaremos una primera reunión con los responsables de los centros participantes y llevaremos a cabo una última sesión conjunta para compartir los procesos al finalizar.

**DATAK:** 2019KO OTSAILA – MAIATZA 2019.\*

**SAIO KOPURUA:** 6 TALDE BAKOITZAREKIN. SAIOAK, AHAL DELA, HILABETE ETA ERDIKO EPEAN EGINGO DIRA. **IRAUPENA:** 2 ORDU; SAIOEK INSTITUTUETAN IZANGO DUTEN IRAUPENA TALDE BAKOITZAREN ARDURADUNAREKIN ADOSTUKO DA.

**FECHAS:** FEBRERO 2018 – MAYO 2019.\*

**NÚMERO DE SESIONES:** 6 POR GRUPO. ESTAS SE CELEBRARÁN, IDEALMENTE, EN EL PLAZO MÁXIMO DE UN MES Y MEDIO. **DURACIÓN:** 2 HORAS, LA DURACIÓN DE LAS MISMAS EN EL INSTITUTO SE ACORDARÁ CON LA PERSONA RESPONSABLE DEL GRUPO.

DBHKO 3. ETA 4. MAILAKO, BATXILERGO-KO ETA LANBIDE HEZIKETAKO TAL-DEENTZAT. / DIRIGIDO A GRUPOS DE 3º Y 4º DE ESO, BACHILLER Y FORMACIÓN PROFESIONAL.

\* Izen-ematea urriaren 1etik 31ra zabalik. Gehienez 6 talde aukeratuko dira. / Plazo de inscripción abierto del 1 al 31 de octubre. Se seleccionarán un máximo de 6 grupos.



PUERTA

A roca

#4

ESKOLA ALDIRIAK.  
ESKOLA KOMUNITA-  
TEARENTZAT  
DEIALDIA.  
PERIFERIAS  
ESCOLARES.  
CONVOCATORIA  
PARA LA  
COMUNIDAD  
EDUCATIVA.



*Arte molde eta praktika berriak ezagutu ditugu, ikasketa dinamika erakargarri eta esanguratsuen bitartez. (...) Ikasleen botere harremanak orekatzen eta hezkidetzaren premia sentiarazten lagundu digu, ikasle zein irakasleei.*

—Gurutze Jauregi. Txirrita eskolako ikasketa burua

*Hemos conocido nuevas formas y prácticas artísticas, a través de dinámicas de aprendizaje atractivas y significativas (...). Nos ha ayudado a equilibrar las relaciones de poder entre el alumnado y sentir la necesidad de la paridad, tanto al alumnado como al profesorado.*

—Gurutze Jauregi. Jefa de estudios de Txirrita eskola

**Elkarrekin pentsatzeko denbora hartzea. Elkarrekin erabakiak hartzea, gustuko ez duguna edo balio ez duguna aldatzeko. Gune komunak hartzea, bertan egoteko modu berriak saiatzeko eta bide berriak eraikitzeko. Eskola, jolastokia, korridoreak eta abar hartzea, artistekin, aitona-amonekin, auzokideekin eta hezitzaileekin ikasteko.**

Tomarse tiempo para pensar juntas. Tomar decisiones colectivas para transformar lo que no nos gusta o ya no nos sirve. Tomar los espacios comunes para experimentar nuevas formas de estar en ellos y poder hacer nuevos caminos. Tomar la escuela, el patio, los pasillos, para aprender con artistas, abuelas, vecinos y educadoras.

*Eskola-aldiriak* urtero egiten den deialdi bat da, eta artea eta hezkuntza elkartzen dituen lankidetzaproiektu bat garatzea du xede, ikastetxean, auzoan eta hirian. Aukera egokia da lan egiteko moduak berriz pentsatzeko eta ibilbide luzeko ikasketa-prozesuak martxan jartzeko; horrek hezkuntza-komunitateko aliantzak indartuko ditu.

#### ORAIN ARTE, PROIEKTU HAUEK GARATU DIRA:

*Auzoko Hitzak*, Egiako hiru ikastetxerekin. 2014/15 ikasturtean.

*Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara*, Antiguako Jakintza ikastolarekin. 2015/16 ikasturtean.

*hilHERRIbizi*, Egia-Intxaurrendoko Lauaizeta ikastolarekin. 2016/17 ikasturtean.

*Gelditu, lasaitu eta bizi!*, Eskoriatzako Arizmendi Ikastolako Almen Gunearekin. 2017/18 ikasturtean.

*Harremangunea*, Ereñotzuko (Hernani) Txirrita ikastetxerekin. 2017/18 ikasturtean.

2018/19 ikasturterako, deialdiaren bi modalitateei eutsiko zaie. A modalitatea Donostialdeko ikastetxei zuzentzen zaie; B modalitatea, berriz, Gipuzkoa osoko ikastetxei.

#### HONAKO PROIEKTU HAUEK EGINGO DIRA 2018/19 IKASTURTEAN:

##### A modalitatea:

*Zubiak eraikiz: komunitate-esparru berriak sortzen*. UPV/EHU. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (musika, plastika eta gorputz-adierazpen didaktika saila).

##### B modalitatea:

*Guztiontzako jolastoki jasangarria eta eraikitzailea*. Tolosako Samaniego ikastetxea.

*Periferias escolares* es una convocatoria anual para desarrollar un proyecto colaborativo de arte y educación en los espacios de la escuela, del barrio o de la ciudad. Se presenta como una oportunidad para repensar los modos de trabajo y poner en marcha procesos de aprendizaje de largo recorrido que refuercen las alianzas con la comunidad educativa.

#### HASTA AHORA SE HAN DESARROLLADO LOS SIGUIENTES PROYECTOS:

*Auzoko Hitzak*, con tres centros escolares de Egia, durante el curso 2014/15.

*Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara*, con Jakintza Ikastola de Antiguu. 2015/16

*hilHERRIbizi*, con la Ikastola Lauaizeta de Egia-Intxaurrendoko. 2016/17

*Gelditu, lasaitu eta bizi!*, con la ikastola Arizmendi Ahalmengunea de Eskoriatza. 2017/18

*Harremangunea*, con la escuela Txirrita de Ereñotzu, Hernani. 2017/18

Para el próximo curso 2018/19, se mantendrán las dos modalidades dentro de la convocatoria. La modalidad A, dirigida a los centros escolares de Donostialdea, y la modalidad B abierta a los centros escolares de Gipuzkoa.

#### LOS PROYECTOS QUE SE LLEVARÁN A CABO DURANTE EL CURSO ESCOLAR 2018/19 SON LOS SIGUIENTES:


##### Modalidad A:

*Zubiak eraikiz: komunitate esparru berriak sortzen*. EHU/UPV. Hezkuntza, filosofía eta antropologia fakultatea (musika, plastika eta gorputz adierazpen didaktika saila).

##### Modalidad B:

*Guztiontzako jolastoki jasangarria eta eraikitzailea*. Tolosako Samaniego ikastetxea.

\* 2019/20 ikasturterako *Eskola Aldiriak* deialdian izena emateko epea 2019ko martxoaren 1etik 31ra izango da. / El plazo de presentación de la convocatoria *Periferias Escolares* 2019/20 se abre entre el 1 y el 31 de marzo de 2019.



#5

IRAKASLERIAREKIN

PROGRAMA.

PROGRAMA CON

EL PROFESORADO.

*Hezkuntza formala eta artea alden-  
duta dauden bizitzako esparru bi  
baldin badira ere, ez dira horregatik  
kontrajarriak. Saio hauetan gertatu  
daitezkeen interakzioak oso interes-  
garriak dira.*

—Izaro Ieregi. Artista, Sortzaileen  
Gunean egoilarra 2017/18

*Pedagogia feministak ... zertarako?  
Bada, hezkidetza hitzari feminista  
hitza itsasteko, hezkuntza gizarte  
feminista bat eraikitzeke aukera  
bakarra delako, hezitzaileon egu-  
neroko jarduerak aztertzeke, ezta-  
baidatzeko, hausnartzeko... Hezi-  
tzaile bezala “deseraikitzeke” eta  
ohitura osasuntsu eta feministetan  
eraikitzeke...”*

—Matti Navas. Lauaizeta ikasto-  
lako irakaslea.

*Aunque la educación formal y el  
arte son dos ámbitos vitales que  
están alejados entre sí, no son tan  
opuestos. Las interacciones que pue-  
den darse en estas sesiones son muy  
interesantes.*

—Izaro Ieregi, artista residente  
del Espacio de creadores, 2017/18

*Llegué a la teoría porque estaba he-  
rida -el dolor en mi interior era tan  
fuerte que no podía continuar vivien-  
do. Llegué a la teoría desesperada,  
queriendo comprender -captar lo que  
sucedió a mi alrededor y en mi inte-  
rior. Lo más importante era que nece-  
sitaba alejar el dolor. Entendí que la  
teoría era el lugar en el que curarme.  
bell hooks. Teaching to transgress,  
1994.*

Elkarrizketaren ardatza hezkuntza eta kultura garaikidean jartzen ba-  
dugu, elkarrekin ikasteko guneak sortu ahal izango ditugu. Gune ho-  
rietan egungo beharrianak eta interesak ezagutu ahal izango ditugu,  
eta elkarrekin pentsatzeko nahiz hezkuntza-tresna irekiak garatzeko  
tokia izango dugu. Hori da irakasleekin eta hezkuntzan interesa duten  
pertsonekin partekatzen dugun programaren azken xedea.

Poniendo en diálogo la educación y la cultura contemporánea es  
posible construir espacios de aprendizaje conjuntos. Lugares donde  
conocer las necesidades e intereses existentes y también lugares  
donde pensar juntas y desarrollar herramientas educativas abiertas.  
Este es el fin último del programa que compartimos con profesora-  
do y personas interesadas en la educación.



2018/19 ikasturtean, alde batetik, irakasleen komunitatearekin elkartzeko bi gune proposatzen ditugu. Gune horietako batek zerikusia izango du *L'intrus* erakusketarekin; erakusketa horrek atzerritarraren/ arrotzaren ideian sakontzen du. Bestea lan-saio bat izango da Tabakalerako Sortzaileen gunean egonaldi bat egiten ari diren artistetako batekin. Beste alde batetik, joan den ikasturtean hasitako lanarekin jarraituko dugu, eta artearen, feminismoaren eta hezkuntzaren arteko lotura sakonago aztertuko dugu.

#### LEHEN TOPAKETA-GUNEA

*Azaroak 28 eta 29*

Lan-saioak, erakusketari loturiko gaietara hurbiltzeko eta ikasleekin egin ditzakegun ekintzak diseinatzeko.

Saio hauen ardatza Natasha Marie Llorens komisiariaren *L'intrus* erakusketa izango da; horren bitartez, hezkuntza inklusiboaren eta erakusketaren edukien arteko lotura sortzen saiatuko gara. Erakusketak bestelakotasuna eta arrotzaren figura lantzen ditu.

Migrazioan, arrazan eta bazterkerian aditua den pertsona bat izango dugu gurekin, eta hark hainbat gako eta gai proposatuko dizkigu ikasgelan hezkuntza inklusiboa lantzeko. Horrez gain, arte garaikidearen zenbait estrategia planteatuko ditugu, gaietan sakontzeko abiapuntu gisa eta ikasleekin hainbat mailatako eztabaidak sortzeko tresna gisa.

#### BIGARREN TOPAKETA-GUNEA

*Apirilean; eguna, zehazteke.*

Egoitza egiten ari diren artistak. Tabakalerako egoitza-programan parte hartzen ari diren artistekin elkartzea, euren lana ezagutzeko eta ikasgelara eramateko estrategiak pentsatzeko.

Durante este curso 2018/19 proponemos, por un lado, dos espacios de encuentro con el profesorado. Uno de ellos tendrá que ver con la exposición *L'intrus* que profundiza en la idea de extranjero/extraño, y el otro será una sesión de trabajo con una de las artistas residentes en el espacio de creadores de Tabakalera. Por otro lado, seguiremos el trabajo iniciado durante el pasado curso, donde comenzamos a profundizar en la relación entre arte, feminismo y educación.

#### PRIMER ESPACIO DE ENCUENTRO

*28 y 29 de noviembre*

Sesiones de trabajo para aproximarnos a las temáticas relacionadas con la exposición y diseñar posibles acciones para desarrollar con el alumnado.

Estas sesiones se centrarán en la exposición *L'intrus* comisariada por Natasha Marie Llorens, a través de la que trataremos de generar un posible vínculo entre una educación inclusiva y los contenidos de la muestra, que aborda la idea de la otredad y la figura del extraño.

Contaremos con la presencia de una especialista en materias de migración, raza y exclusión, que nos aportará claves y temas para una educación inclusiva en el aula... Además, plantearemos algunas estrategias de arte contemporáneo que podrán servirnos como punto de partida para profundizar en los temas y crear debates con el alumnado a diferentes niveles.

#### SEGUNDO ESPACIO DE ENCUENTRO

*Durante el mes de abril, fecha por concretar.*

Artistas en residencia. Encuentros con artistas del programa de residencias de Tabakalera, con el objetivo de conocer su trabajo y pensar en posibles estrategias para trasladar al aula.

DATAK: **AZAROAK 28 ETA 29. (ETA 2 SAIO APIRILEAN. EGUNAK, ZEHAZTEKE).** ORDUTEGIA: **17:00-19:00.**  
IRAUPENA: **2 ORDU GEHIENEZ.** TOKIA: **TABAKALERA.**

HEZKUNTZARI LOTURIKO PERTSONENTZAT. / DIRIGIDO A PERSONAS VINCULADAS A LA EDUCACIÓN.

FECHAS: **28 Y 29 DE NOVIEMBRE. (Y 2 SESIONES DURANTE EL MES DE ABRIL; FECHAS A CONCRETAR)** HORARIO: **17:00 A 19:00.** DURACIÓN: **2 HORAS MÁXIMO.** LUGAR: **TABAKALERA.**

Bigarren ikasturte honetan, gure hezkuntza-praktiken inguruan elkarrekin hausnartzen jarraituko dugu, bizipenak partekatzen, elkarrekin pentsatzen, lanerako tresnak sortzen eta gure metodologiak aberasten. Arte garaikidea eta feminismoak gurutzatzen direnean, praktika pedagogiko inklusiboak plazaratzeko aukera dugu, eta gu gaudeneko menderatze-mekanismoen gainean hausnar dezakegu. Ezinbestekoa da hezkuntza-testuinguruan gune seguruak ahalbidetzea eta mugak gainditzen dituzten eta disruptiboak diren diskurtsoak eta begiradak sortzea feminismoetatik eta artetik.

Lehen saioan lanerako egutegia adostea proposatzen dugu, baita landuko diren gaien corpusa osatzea ere, parte hartuko duten pertsonen interesak eta beharrak oinarri hartuta. Horretarako, autoprestakuntzaren eta herri-hezkuntzaren praktikak izango ditugu inspirazio-iturri. Hala, esparru bat proposatuko dugu, taldea bera antolatu dadin saioak dinamizatzeko eta programatzeko.

Durante este segundo curso continuaremos repensando nuestras prácticas educativas de manera colectiva compartiendo experiencias, pensando juntas, creando herramientas de trabajo y enriqueciendo nuestras metodologías. El arte contemporáneo en su cruce con los feminismos funciona como un lugar desde el que enunciar prácticas pedagógicas incluyentes que permitan una reflexión sobre los mecanismos de opresión en los que nos insertamos. Es fundamental posibilitar espacios seguros dentro del contexto educativo y generar discursos y miradas desde los feminismos y el arte, que vayan más allá de los límites y sean disruptivos.

En esta primera sesión proponemos consensuar un calendario de trabajo y un corpus temático que abordar, a partir de los intereses y las necesidades de las personas que participen. Nos inspiramos para ello en las prácticas de la autoformación y de la educación popular, y proponemos un marco en el que el propio grupo se organice para la dinamización y la programación de las sesiones.

DATAK: **ZERO SAIOA. IRAILAK 18.** ORDUTEGIA: **17:00–20:00.**

TOKIA: **TABAKALERA.**

FECHAS: **SESIÓN CERO. 18 DE SEPTIEMBRE.**

HORARIO: **17:00 A 20:00.** LUGAR: **TABAKALERA.**

HEZKUNTZARI LOTURIKO PERTSONENTZAT ETA INTERESA IZAN DEZAKETEN GUZTIENTZAT. / DIRIGIDO A PERSONAS VINCULADAS A LA EDUCACIÓN Y CUALQUIER PERSONA INTERESADA..

\* **Aldez aurretik izena emanda /**  
Previa inscripción:  
[hezkuntza@tabakalera.eu](mailto:hezkuntza@tabakalera.eu)

# INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN-EMATEAK MÁS INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES:

hezkuntza@tabakalera.eu

**Tabakalerako informazio puntua / Punto de información de Tabakalera**  
943 11 88 55

**ZENTROAREN ORDUTEGIA / HORARIO DEL CENTRO**

Astelehenetik ostegunera / De lunes a jueves: 09:00 - 21:00

Ostirala / Viernes: 9:00 - 22:00

Larunbata / Sábado: 10:00 - 22:00

Igandeak eta jaiegunak / Domingos y festivos: 10:00 - 21:00

Andre zigarrogileak plaza, 1  
20012 Donostia / San Sebastián  
Gipuzkoa

[tabakalera.eu](http://tabakalera.eu)

—





Das ist doch die Aufzugstube

Wandverankerung

Freie Steine  
Stachel  
Lernzettel

Herkunft

EO-05

